



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEN ORRIAK

KONTRATU MOTA: AHOLKULARITZA ETA LAGUNTZAKOAK ETA ZERBITZUETAKOAK
PROZEDURA: IREKIA
ESLEIPENA: LEHIAKETA EDO ENKANTEA

I.- KONTRATUAK ZER DUEN BERE BAITAN

1. KONTRATUAREN XEDEA

- 1.1. Azaleko orriaren lehenbiziko puntuan aipatzen den prestazioa da kontratuaren gaia.
- 1.2. Orri hauetan eta Betebehar Teknikoetakoetan datozen baldintzak bete behar dira, orri horiek ere kontratua osatzen baitute.
- 1.3. Kontratua lehiaketa bidez esleitzen baldin bada, lizitatzailleek aldaketak edo beste aukera batzuk aurkeztu ahal izango dituzte (barianteak edo alternatibak), betiere klausula-agiri hauen azaleko orriko 2. puntuan jasotzen diren baldintza, modalitate eta bestelako alderdien artean sartzen baldin badira; gehienez aurkeztu ahal izango den kopurua puntu horretan bertan zehazten dena izango da.

2.- ARAUAK

Kontratuak ondorengo arauak bete beharko ditu:

- a. Agiri honetako klausulak, azaleko orrian zehaztuta dagoen moduan, azaleko orria ere agiriaren zati baita.
 - b. Ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretua. Dekretu horren bidez onartu zen Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu bategina.
 - c. Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua. Dekretu horren bidez onartu zen Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra.
- 2.4. Herri Administrazioen Kontratuen Legean eta lege horren Erregelamendu Orokorrean xedaturikoaren aurka ez dagoenerako, 1972ko martxoaren 8ko Agindua. Agindu horretan onartu ziren, hain zuzen ere, azterketa eta zerbitzu teknikoak kontratatzeke Administrazio-klausula orokorren orria edo plegua.
 - 2.5. Estatu mailako nahiz Euskal Autonomia Erkidegoaren mailako kontratazioa arautzen duen beste edozein xedapen, erkidego horren esparruan aplikatzekoa bada.
 - 2.6. Kontratuaren zehaztasunak, kontratuari erantsitako agiriak edo Eusko Legebiltzarrak onartutako jarraibide, klausula-agiri edo era guztietako arauak ezagutu gabe ere, hitzartutakoa betetzeko erabili beharrekoak gerta badaitezke, kontratistak horiek guztiak betetzeko obligazioa izaten jarraituko du.





3. KONTRATUAREN AURREKONTUA ETA KREDITUA IZATEA

- 3.1. Hitzartutako prestazioak betetze aldera Eusko Legebiltzarrak jarritako aurrekontuaren kopurua zein den azaleko orriko 8. puntua dago zehazturik, eta urteko zenbat ordainduko dugun, berriz, orri horretako bertako 9. puntuan dago zehazturik. 13. puntuan jasota dagoen sistema erabili da kopuru hori zehazteko.
- 3.2. Bada nahikoa kreditu Legebiltzarrak kontratuko betebeharrak bete ditzan. Azaleko orriko 10. puntuan dago zehazturik aurrekontuan zer diru-izendapen dagoen horretarako.

4. PREZIOAK BERRIKUSTEA

- 4.1. Kontratistak hartuko ditu bere gain kontratua betetzearen arriskuak.
- 4.2. Dena den, prezioak berraztertzeari dagokionez, agiri honen azaleko 16. puntuan esaten dena bete beharko da, eta indarrean dagoen legeria ere bete beharko da.
- 4.3. Kontuan izan behar da berraztertzeren bat egiteko, kontratuak dagokion kostuaren %20an burututa egon behar duela eta esleitu zenetik urtebete igarota izan behar duela; beraz, ezin izango dira berraztertu ez kostuaren %20 ez eta hasi zenetik urtebete igaro artekoa.

5. KONTRATUAREN IRAUPENA

- 5.1. Klausula-agiriko azaleko orriaren 11. puntuan dago ezarrita kontratua burutzeko gehieneko denbora. Ezingo da bi urte baino luzeagoa izan, eta Euskal Autonomia Erkidego aurrekontuen legeak ezarritako baldintzak eta mugak begiratu beharko dira. Hala ere, luzapen bat edo gehiago ere izan daiteke, klausula-agiriko azaleko orrian berariaz aurreikusten bada, baina kontratuak ezingo du guztira lau urte baino gehiago iraun.
- 5.2. Aholkularitzako eta laguntzako kontratuak eta zerbitzu-kontratuak luzatzea:
 - 5.2.1. Klausulen azaleko orriaren 12. puntuan hartarako aukera ematen badu eta alde denak ados badaude, hasiera batean erabakitakoa ez beste denbora baterako luza daiteke kontratua, eginbeharrekoari eustearren. Eusko Legebiltzarreko Mahaiak berariaz ebatzi beharko du luzatzea. Luzapena edo luzapenak ezingo dira, ez banaka harturik ez batera, hasieran zehaztutakoa baino denbora gehiagorako ebatzi.
 - 5.2.2. Esleipena eskuratu zuenak, halakoetan, luzapenerako baldintza ekonomikoen proposamena kontratua amaitu baino gutxienez bi hilabete lehenago bidali beharko dio Legebiltzarrari. Hala egiten ez badu, baldintza horiek ordura arteko berberak izango direla ulertuko dugu.
 - 5.2.3. Berariaz ezer ebatzi baino lehen, kontraesaneko espedientea egin beharko du Eusko Legebiltzarrak. Espediente horretan jaso beharko dira, nahitaez, zerbitzu juridikoaren txostena, kontrol ekonomikoko zerbitzuaren txostena, eta, aurretiaz fiskalizatu beharretik salbuetsita ez badago -uztailaren 28ko 148/2000 Dekretuaren arabera-, gastuaren fiskalizazioa eta datozen aurrekontu-ekitaldietarako konpromisoaren fiskalizazioa, halakorik egotekotan.
- 5.3. Kontraesaneko espedientea egin beharko da, baldin eta kontratua indarrean dagoen bitartean aldatetaren bat egin nahi bada, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko 102. artikuluari jarraiki.



- 5.4. Xedatutako hori horrela izanagatik ere, obra eta hornigaietarako beste kontratu batzuen osagarriak badira, aholkularitza eta laguntzako kontratuak eta zerbitzu-kontratuak bai egon daitezke denbora gehiago indarrean. Denbora hori, baina, ez da inoiz kontratu nagusiak iraungo duena baino gehiago izango. Badago, nolana ere, salbuespen bat: aholkularitza eta laguntzako kontratuek eta zerbitzu-kontratuek kontratu nagusiak baino gehiago iraun dezakete, baldin eta kontratu haiek kontratu nagusiak kitatzeko lanak egitekoak badira. Kasuotan, amaitzeko behar beste gehiago iraungo dute aholkularitza eta laguntzako kontratuek eta zerbitzu-kontratuek. Paragrafo honetan aipatutako kontratu osagarria ez da indarrean jarriko harik eta obretarako kontratua exekututzen hasi arte. Horrela egingo da beti, xedeak eta edukiak bestela jokatzeko agindu ezean.
- 5.5. Inkestak egiteko, datuak biltzeko edo antzeko beste lan batzuk egiteko, aldi baterako laneko enpresak kontratatzen badira, zerbitzu-kontratuok ezingo dute, inoiz, sei hilabete baino gehiago iraun, eta amaitzen direnean amaitu dira, epea luzatzeko aukerarik gabe.

6.- KONTRATUA ESLEITZEKO PROZEDURA ETA MODUA

Kontratu hau esleitzeko, prozedura irekia erabiliko da, enkante edo lehiaketa bidez, klausula-agiri honen azaleko 7. puntuan esaten denaren arabera. Hori guztia Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu bategineko 82.etik 90.era arteko artikuluetan dago araututa.

II. PROPOSAMENAK AURKEZTEA ETA BEHARREZKO DOKUMENTUAK

7. ARAU OROKORRAK

- 7.1. Kontratuko lizitazioan eskaintzarik aurkeztu ahal izateko –aurrerago zehaztuko dugu nola-, pertsona juridikoa edo fisikoa izan daiteke, espainiarra edo atzerriarra, jarduteko gaitasun osoa izan behar du, helburuz edo jardutez kontratuko gaiarekin zerikusi zuzena izan behar du eta hala agertu behar du estatutuetan edo sorrerako arauetan. Kaudimen nahikoa erakutsi beharko dute eskaintza aurkezten dutenek, eta kontratua aurrera ateratzeko behar bezain beste langile eta material izan beharko dute antolatuz.
- 7.2. Proposamenak aurkezteak esan nahiko du lizitatuzaileak klausula-agiri honetan eta klausula-agiri honen azalean esaten den guztia baldintzarik gabe onartzen duela, eta orobat, kontratuaren gainontzeko agiri guzti-guztietan esaten dena onartzen duela; gainera, aurkeztutako datu guztiak zehatzak direla adierazten duela ulertuko da, eta lizitazioaren xede diren prestazioak kontratatzeke eskatzen diren baldintza denak betetzen dituela.

Kontratu honen zehaztasun teknikoak idazten parte hartu duten enpresek ezin izango dute lizitazioan parte hartu, baldin eta parte hartze horrek lehia libreari oztopoak jartzen badizkio edo baldin eta gainerako enpresekin alderatuta pribilegioak sortzen badira enpresa batzuentzat (Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu bategineko 52.3 artikulua).

Gainera, lizitatuzaileek ezin izango dute proposamenik izenpetu beste enpresa batzuekin, aldi bateko enpresa-elkarte gisa agertuta, baldin eta banaka izenpetu badute. Era berean, ezin izango dute parte hartu aldi bateko enpresa-elkarte batean baino gehiagotan. Arau horietakoren bat ez bada betetzen, onartu barik geratuko dira arau-hausleak izenpetutako proposamen guztiak.





Obra eta instalazioen exekuzioa zaintzeko, ikuskatzeko, kontrolatzeko eta zuzentzeko aholkularitza- eta laguntza-kontratuak ezingo zaizkie obra horiek egiteko kontratuak lortu dituzten enpresa bereberei esleitu, eta ezta haiei loturik dauden enpresei ere (Herri Administrazioen Kontratuaren Legearen testu bateginekoko 134. artikuluan dago zehazturik zein diren).

7.3. Lizitazio honetan parte hartzeko, proposamengileak klausulen orriaren azaleko 25. puntuan zehazten den lekuan aurkeztu behar du eskaintza, lizitazioaren iragarkian zehaztutako epean. Hiru gutun-azal itxitan aurkeztu behar dira eskaintzak (A, B, C), bai eta gero aipatuko diren agiriak gutun-azalotan sartuta ere. Gutun-azal bakoitzean hauek adierazi beharko dira: zein kontratutarako aurkezten den proposamena, enpresa edo proposamen-egilearen izena, proposamena sinatzen duenaren izen-abizenak eta zelako izaerarekin sinatzen duen. Guztia argi irakurtzeko moduan adierazi beharko da. Gutun-azalek lizitatuzaileak edo lizitatuzailearen ordezkariak izenpetuta egon beharko dute, nahitaez.

Lizitatuzaileak proposamena postaz bidaltzen baldin badu, bidali duen eguna egiaztatu beharko du postetxean, eta eskaintza posta bidez bidali duela adierazi beharko dio Eusko Legebiltzarreko Mahaiari egun bereko telex, telefax edo telegrama bidez.

Azaleko orriko 25.1 puntuak hartarako bidea ematen badu, proposamena bidali izana posta elektronikoki bidez ere adierazi ahal izango da, azaleko orrian agertuko baita horretarako helbidea. Komunikazio-modu horrek baliorik izango badu, nahitaezkoa da argi jasota egotea bai bidali izana eta bai jaso izana, bai datak eta bai komunikazioetako eduki osoa, eta ondo identifikaturik egotea zein diren bai bidaltzailea eta bai jasotzailea. Halakoetan, kopia bat inprimatu, eta erregistratu egin beharko da. Gero, espedienteari erantsi beharko zaio.

Proposamena ez da onartuko baldin eta bi baldintza horietakoren bat ez bada betetzen edo iragarkian zehaztutako epe-amaierako eguna eta ordua baino geroago iristen bada bidali izanaren adierazpena. Dena den, jarritako epea igaro eta hurrengo hamar egun naturalak igaro ostean ez bada proposamena jaso, orduan ez da kasu batean ere onartuko.

7.4. A gutun-azala: proposamen ekonomikoa

Eskaintza bakoitzerako, proposamen bakarra eduki behar du, eta berdin dio oinarritzkoa den edo ezereen bariantea edo alternatiba den –lizitatuzaileak halakorik ere aurkez baitezake, azaleko 2. puntuan aukera emanaz gero–. Lizitatuzaileak edo lizitatuzailearen ordezkariak izenpeturik egon behar du; I. eranskineko ereduaren arabera idatzita egon behar du. Eskaintzako prezioak kontzeptu guztiak izan behar ditu bere baitan bilduta, baita Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) edo ordaindu beharreko beste edozein zerga edo gastu, joan-etorrietarako gastuak eta kontratugilearen irabaziak ere.

Kontratuaren gaia publizitate-lanak egitea bada, lizitatuzailearen eskaintzaren barruan egin beharreko lanaren prezioaz gain, sormen-lana bera, jatorrizkoak sortzea eta ekoiztea eta publizitate hori zabaltze eta komunikabideetan ematea ere sartuko dira, eta horiek guztiak sartuta daudela ulertuko dugu.

7.5. B gutun-azala: Kontratatzeko gaitasuna

Dokumentu hauek edukiko ditu:





- 7.5.1.** Norberaren izenean edo besteren ordezkari izanik proposamena aurkezten duen pertsonaren Nortasun Agiri Nazionala.
- 7.5.2.** 7.5.2.- Lizitzailea pertsona juridikoa bada, eraketa-eskriturak eta aldaketen eskriturak, Merkataritzako Erregistroan jasotakoak; beti ere, Merkataritza Erregistroan izena emanda egoteko eskakizun hori ezartzekoa den merkataritzako legeriarena bada. Merkataritza-legeek Erregistroan izena emateko agindu ezean, hauetako bat aurkeztu beharko du lizitzaileak: sorrerako eskritura edo agiria; aldaketen agiria; estatutuak edo, bestela, jarduerak bete beharreko arauak jasotzen dituen sorrera-egintza, biak ere dagokion erregistro ofizialean inskribituak.
- 7.5.3.** Lizitzailea ez baldin badabil bere izenean edo sozietateren bat edo pertsona juridikoren bat bada, behar besteko ahalordetzea. Lizitzailea pertsona juridikoa bada, ahalordetza horrek Merkataritza Erregistroan jasota egon behar du. Merkataritza Erregistroko Arautegiko 94.1.5 artikuluan xedaturikoaren arabera, ahalordetzea hori egintza jakin baterako bada, ez du Merkataritza Erregistroan jasota egon beharrik.
- 7.5.4.** Lizitzaileek behar adinako baliabide pertsonal eta materialez hornitutako antolamendua daukatela egiaztatatu beharko dute behar den bezala.
- 7.5.5.** Legeak kontratuak egiteko ezartzen dituen debekuetako batean ere ez dagoela egiaztatzen duen agiria (debekuok, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu bategineko 20. artikuluko a), b), c), d), e), f) g), h), j) eta k) idatz-zatietan azaltzen dira). Egiaztapen hori epailearen lekukotasunaren bidez edo administrazio-ziurtagiriaren bidez egin ahal izango da, kasuak kasu. Agintaritza eskudunak ezin badu agiria eman, horren ordez erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahal izango da, administrazio-agintaritza, notario publiko edo lanbide-erakunde kualifikatu baten aurrean emandakoa. Erantzukizunpeko adierazpen horretan, lizitzaileak berariaz aipatu beharko du beteak dituela indarrean dagoen legeriak ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Hala ere, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteak izatearen egiaztapen hori, kontratua esleitu baino lehen egin dezatela eskatuko zaie esleipendun izango direnei. Egiaztapen hori hurrengo paragrafoan aipatzen den eran egin beharko da. Horretarako, gehienez ere 5 egun baliadun emango zaizkie (Herri administrazioen kontratuen legearen testu bategineko 79.2 b).
- 7.5.6.** Indarrean dagoen legeriak ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordaintzeari dagokionez, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko 15. artikuluan ezartzen den moduan egiaztatatu ahal izango da betebeharrak ordaindu izana, eta horrela, ez da kontratua esleitu aurretik egin beharko. Betebeharrak ordaindu izana egiaztatzeko, egiaztapen administratiboak aurkeztu beharko dira. Egiaztapenok kasuan kasuko ogasunek (Estatuko Ogasunak edo foru-ogasunak, sozietateen gaineko zergan ageri den eragiketa-kopuruaren arabera) eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrak eman beharko dituzte. Jarduera ekonomikoen gaineko zergari dagokionez, baldin eta zerga horrekin zerikusirik duten jarduerak egiten badira, ekitaldi honetako alta aurkeztu beharko da, kontratuaren xedea adierazten duen epigrafean, edo, bestela, azken ordainagiria eta jarduera ekonomikoen gaineko zergaren matrikulan baja eman ez duela azaltzen duen adierazpena (Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko 15. artikuluari lotutako 13.a artikulua).

Hala ere, baldin eta enpresak ez badauka aurkeztu beharrik Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko 13. artikulua (zerga-betebeharrak) eta



14. artikulua (Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak) aipatzen dituzten aitopenen edo dokumentuak, erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztatu beharko da egoera hori.

7.5.7. Lizitatuak klausula-agiri honen azaleko 17. puntuan eskatzen den behin-behineko bermea eman beharko du. Berme kontratuaren aurrekontuaren % 2 izango da, eta 7.7.3 klausulari lotutako 10.A) klausulan adierazten da zelan eratu behar den.

Behin betiko bermearen ordez, egiaztagiria aurkeztu ahal izango da, eta egiaztagiri horretan hau adierazi beharko da: berme orokorra badagoela, berme hori nahikoa dela eta osatu beharreko bermeari dagokion kopurua ibilgeturik dagoela. Egiaztagiri hori Eusko Legebiltzarreko diruzaintza orokorrak emango du.

Hainbat enpresaburuk bat egin badute behin-behingo, enpresa horietako batek edo batzuek jar dezakete behin-behineko bermea, baina, hori bai, guztira, azaleko orriko 17. puntuan eskatzen den kopurura iritsi beharko dute, eta batak bestea bermatu beharko du elkartasunez.

7.5.8. Klausula-agiri honen azaleko 20. puntuan hala eskatzen bada, behar bezalako sailkapena aurkeztu beharko da. Sailkapenak oraindik indarrean egon behar du eta puntu horretan zehazten diren multzoko, azpimultzoko edo kategoriako prestazioak kontratatzeko gaitasuna eman behar du. Sailkapenik eskatzen ez bada, gaitasun ekonomiko, finantzario, profesional eta tekniko edo zientifikoa egiaztatzeko agiria aurkeztuko da, klausula-agiri honen azaleko 20.2.b puntuan xedatzen denari jarraituz.

7.5.9. Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emana duten lizitatuak dagokienez, kontratatzeko gaitasuna dutela egiaztatzen duen indarreko agiriaren kopia aurkeztu beharko dute (Kontratisten Erregistro Ofizialari eta sailkapenak ezartzei buruzko otsailaren 3ko 12/1998 dekretuak arautzen du erregistroa). Egiaztagiri hori, erregistroko legelari arduradunak eman beharko du. Horrela eginda, lizitatuak ez dute aurkeztu eta egiaztatu beharrik izango klausula-agiri honetako 7.5.1., 7.5.2., 7.5.3., 7.5.5. y 7.5.6. eta 7.5.8 puntuetan zehazten diren dokumentu eta zehaztasunak.

Kontratisten Erregistroan izena emana dagoela egiaztatzeko agirian ez baldin badago klausula-agiri honetako 7.5.8. puntuan aipaturik dagoen sailkapena, edo egon bai baina iraungita baldin badago, egiaztagiri horrekin batera aurkeztu beharko du lizitatuak.

7.5.10. Baldin eta hainbat enpresaburu aldi baterako enpresa-elkarte batean bilduta aurkeztzen badira lizitazioa, haietako bakoitzak egiaztatu beharko du baduela jarduteko gaitasuna, lehen aipatutako puntuetan zehaztutakoaren arabera, eta orobat gaitasun ekonomikoa ere. Gainera, proposamen bat aurkeztu beharko dute idatziz, eta bertan honako hauek adierazi beharko dituzte: proposamen hori sinatzen duten enpresaburuen izenak eta ezaugarriak; bakoitzak elkartean zer parte-hartze duen; elkartea ordezkaturiko duen ordezkari edo ahaldun bakarraren izendapena, zeinak behar adina ahalmen izan beharko duen; eta esleipena berei ematekotan, formalki aldi baterako elkarte bihurtzeko konpromisoa. Ordezkari edo ahaldunari dagokionez, kontratua esleitutakoan, hari darizkion eskubideak erabili eta betebeharrak bete ahal izango ditu. Alabaina, elkarrekiko ahalmenak ere egon daitezke, zenbateko handi samarrak kobratu eta ordaintzeko. Elkarteko enpresa bakoitzeko ordezkariak izenpetu behar dute agiri hori. Kontratua enpresa-elkarteari esleitzen bazaio, orduan bakarrik egin beharko da elkartea eratzeke eskritura publikoa (Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu bateginekoko 24.1



artikulua eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko 24. artikulua).

Sailkapena nahitaez aurkeztu behar den kasuetan, eta aldi baterako enpresa-elkarte horretan Estatuko enpresaburuak, Europako Batasuneko atzerritarrak eta Batasunaz kanpoko atzerritarrak baldin badaude, lehenengo biek beren sailkapena egiaztatu beharko dute, eta gainontzekoek, sailkapenik ezean, gaitasun ekonomiko, finantzario eta teknikoak dutela erakutsi beharko dute.

7.6. C gutun-azala. Esleitzeko irizpide objektiboetara eta lehiaketako beste gauza garrantzitsu batzuei buruzko agiriak

7.6.1. Azaleko orriko 29. puntuan hala jasota badago, lehiaketa esleitzeko irizpide bakoitza egiaztatzeko agiri eta bestelako baliabideak ere aurkeztu beharko dira, Legebiltzarrari erakustearren.

7.6.2. Lanaren zein zati azpikontratatu duen ere zehaztu beharko du lizitatuak. Eta, eskaintako aurrekontu osoaren aldean, azpikontratazio hori zein ehunekoa den ere adierazi beharko du.

Birkontratazio horiek zein enpresa edo enpresa-bururekin egingo dituen ere zehaztu beharko du, haiekin jarduteko konpromisoa harturik, zerrenda baten bidez. Haien ezaugarri teknikoak ere eman beharko ditu.

7.6.3. Lanen egitaraua.

(Klausulen orriaren azaleko orriko 27. paragrafoan hala eskatuz gero, lanen egitaraua aurkeztu beharko da).

7.6.3.1. Oinarri teknikoen orrian jasota dauden oinarritzko betebeharrak teknikoak betetzen direla azaldu beharko da laneko programan, eta, gutxienez, honako datu hauek zehaztu, jarduera eta denboren diagramak erabiliz:

- a) Zerbitzua edo prestazioa betetzeko egin beharreko lanak, eta, beharrezkoa bada, lan horien barruko operazio garrantzitsuenak.
- b) Lanak egiteko eta zerbitzua betetzeko zein ekipo eta baliabide erabiliko dituen, eta zein izango den arduraduna edo aholkulariaren ordezkoa.
- c) Lanak egiteko zatikako epeak –egutegiko epeak– gutxi gorabehera.

Betebeharrak teknikoetako orrian bestelakorik jartzen ez badu, epe horiek asteka eta hileka zehaztu beharko dira.

- d) Esleipeneko prezioetan oinarriturik, hilabete bakoitzerako programatutako lanen balorazio bateratua.

7.6.3.2. Laneko programa ere kontratuko agirien artekoa izango da ondorio guztietarako eta, bereziki, orri hauetako 14,1 klausulan jasotako ondorioetarako. Esleipendunak proposamen ekonomikoan eskaintako beherapenaren ehunekoa aplikatuz zuzenduta egon behar du programa horrek.





7.6.3.3. Baliteke lizitazio-garaian administrazioak lan-programa aztertzea, baina horrek ez du esan nahi lan-programa hori onartu egin behar duenik. Aurkezten den egunetik aurrera, Eusko Legebiltzarrak 20 egun izango ditu lan-programaz ebazteko. Baliteke, gainera, ebazpenak programari zer edo zer aldaraztea edo betebeharrak batzuk agintzea, baina hauek ez dira inoiz izango kontratuko klausulen aurkakoak. Eta, baliteke, era berean, administrazio-klausula partikularren orrian horrelakorik ez badago, ebazpen horrek agintzea nahitaez bete beharreko zatikako epe batzuk.

Lan-programa behin betiko onartzeak –lan-taldea eta baliabideak zehazturik– ez du esan nahi inola ere esleipendunak ez duela kontratuko betebeharrak zertan bete.

7.7. Aurkeztu beharreko agiriei buruzko azalpenak

7.7.1. Eskatzen diren agirien jatorrizkoak edo haien kopiak aurkeztu ahal izango ditu lizitatuak; kopiak aurkezten baditu, Eusko Legebiltzarrak edo notarioak egiaztatuta beharko ditu, behar bezala egiaztatuta ere.

7.7.2. Espainiakoak ez baina Europako Batasunekoak diren enpresek nahiz atzerriko gainerako enpresek B gutun-azalean aurkeztu beharreko agiriei dagokienez, klausula-agiri honetako II. eranskinean esaten dena bete beharko da.

7.7.3. Diruzaintzan ez da behin-behineko bermerik jarri beharko berme hori abal baten bidez edo kaudizioko aseguru-kontratuaren bidez egin bada. Horrelakoetan, Eusko Legebiltzarreko Mahaiaren aurrean jarriko da berme hori.

7.7.4. **Hiru hilabete daude esleipenaren aurkako errekurtsioak aurkezteko: bat aukerako berraztertze errekurtsioa aurkezteko eta bi administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkezteko. Hiru hilabeteok igarota, eta baldin eta errekurtsorik aurkeztu ez bada, interesdunen esku geldituko da proposamenekin batera aurkeztu den dokumentazioa.**

Hala ere, behin betiko esleipena emanda hiru hilabeteko epea igaro ostean, Eusko Legebiltzarrak erabaki ahal izango du lizitatuak aurkeztutako dokumentuak desagitea, baldin eta lizitatuak ez badituzte agiriok jaso.

7.8. B eta C gutun-azalean sartutako agiriak egiazkoak direnez egiaztatuta ahal izango du Eusko Legebiltzarrak, eta baita azaleko orrian esleipen-irizpide berezi modura zehaztuta daudenena ere. Egiaztatuta hori egin daiteke bai kontratua esleitu aurretik bai ondoren bai kontratua indarrean dagoela ere. Enpresak emandako datuak eta zehaztasunak gezurrezkoak badira, hori kontratua deuseztatzeko arrazoi izan daiteke, kontratistari berari egotz dakioken hutsegitea izateagatik. Horrek behin betiko bermea galtzea ekarriko du, edo, bermerik jarri ez bazen, edo klausulen azaleko orriaren 17. puntuan jartzeko eskatu ez bazen, berme horren adinako kalte-ordaina ordaindu beharra ekarriko du. Gainera, eragindako kalte eta galerak bermetzat jarritako diru-zenbatekoaz gorakoak badira, Eusko Legebiltzarrari bermeaz gorako alde hori ere ordaindu beharko da (Herri administrazioen kontratuen legearen testu bategineko 113.4 artikulua).

III.- PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA ESLEIPENA





8. AGIRIAK SAILKATZEA; KONPONTZEKO MODUKO HUTSEGITEAK; ETA PROPOSAMENAK ZABALTZEA

- 8.1.** Eusko Legebiltzarreko kontratazio-organoak, aldez aurretik, B eta C gutunazalen edukia aztertuko du, eta lizitatuzaileek epearen barruan eta era egokian aurkeztutako agiriak sailkatuko ditu.
- 8.2.** Eusko Legebiltzarreko kontratazio-organoak aurkeztutako dokumentazioan konpontzeko moduko akatsik edo hutsik ikusten badu, interesatuei jakinaraziko die, ahoz. Hori horrela da, baina, dena dela, halakorik gertatuz gero, kontratazio-organoak jendaurrean jakinarazi beharko du, iragarki bidez, eta lizitatuzaileei epe bat emango die –ez hiru egun baliodun baino gehiago-, akats edo huts horiek Eusko Legebiltzarreko kontratazio-organoaren beraren aurrean zuzentzeko edo betetzeko (Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko 81.2 artikulua.)
- 8.3.** Eusko Legebiltzarreko kontratazio-mahaiak, lizitazio-iragarkian adierazitako leku, egun eta orduan eta jendaurrean jakinaraziko die lizitatuzaileei zein proposamen onartu edo ezetsi diren, eta ezetsitakoen kasuan, ezesteko arrazoiak. Jarraian, A gutunazaleko proposamen ekonomikoak zabaldu eta irakurriko dira.
- 8.4.** Ez dira onartuko honako proposamen hauek:
- Kontraesanak, hutsuneak, akatsak edo zirriborroak direla-eta Eusko Legebiltzarrek eskaintza kontuan hartzeko ezinbestekoa duena garbi ikusteko biderik ematen ez dutenak.
 - Aztertutako eta onartutako agiriekin loturarik ez dutenak.
 - Lizitazioko oinarritzko aurrekontua gainditzen dutenak.
 - Proposamenaren zenbatekoan hutsegite nabarmena dutenak, esleitzeko modua enkantea den kasuetan.
 - Klausula-agiri honen eranskin gisa ageri den proposamen-eredua nabarmen aldatzen dutenak.
 - Akatsak direla-eta edo fundamentu falta dela-eta, bideratu ezin diren proposamenak, lizitatuzaileak berak hala onarturik.
- 8.5.** Proposamen ekonomikoak irakurri ostean, eta aurreko paragrafoan adierazitakoa kontuan hartuta, Eusko Legebiltzarreko kontratazio-organoak Eusko Legebiltzarreko Mahaiari igorriko dizkio proposamen horiek, aktak, aurkeztutako gainerako agiri teknikoak, esleipenaren proposamena eta egoki irizitako gainerako oharak.

Kontratua enkante bidez esleitzen den kasuetan, Eusko Legebiltzarreko kontratazio-organoak proposamen ekonomiko abantailatsuenaren zein den erabakiko du eta haren alde egingo du esleipen-proposamena. Halaber, bertaratutako lizitatuzaileei aukera emango die egoki irizitako ohar edo erreserba guztiak egin ditzaten, zeinak idatziz egin beharko diren bi laneguneko epean gehienez ere (Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko 87.1. art.).

Kontratua lehiaketa bidez esleitzen den kasuetan, Eusko Legebiltzarreko kontratazio-organoak esleipenaren proposamena egin baino lehen, egoki irizitako txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu.

9. KONTRATUA ESLEITZEA

9.1. KONTRATUA ENKANTE BIDEZ ESLEITZEA





9.1.1. Eusko Legebiltzarreko Mahaiak erabakiko du kontratuaren esleipena. Esleipena Eusko Legebiltzarreko kontratazio-organoak egindako esleipen-proposamenean esaten denaren arabera egingo da. Alabaina salbuespenak egongo dira, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu bategineko 83. artikuluan aurreikusten diren kasuetakoren bat gertatzen baldin bada edo proposatu den lizitatuak ez baldin badu egiaztatu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduak dituela.

Azkenengo kasu horretan, Eusko Legebiltzarreko Mahaiak hurrengo lizitatuak edo lizitatuak esleitu ahal izango die kontratua, eskaintzen hurrenkeraren arabera eta posible baldin bada, beste deialdi bat egin baino lehen. Hori egiteko, dena den, esleipendun berriaren oniritzia behar du eta esleipendun berri horrek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduak dituela erakutsi beharko du.

9.1.2. Esleipen-proposamena egiterakoan ez baldin bada ordenamendu juridikoa bete, eta urratze horrek esleipendun gisa proposatutako lizitatuak baino ez baldin badio eragiten, urratze horrek eragiten ez dion hurrengo lizitatuarentzat izango da esleipena, baina zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduak dituela erakutsi beharko du, eta alde aurretik kasuan kasuko zerbitzu juridikoen txostena behar izango da.

9.1.3. Hasiera batean behintzat, Herri Administrazioen Kontratuen Legeko Erregulamendu Orokorreko 85. artikuluan zehazturik dauden kasuak izango dira neurrigabeak edo tentugabeak.

Beharpen bat neurritz kanpoko edo tentugabea dela deklaratzeko, ustez tartean diren lizitatuak guztiei informazioa eskatu beharko zaie, aurretiaz, eta dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa eta Eusko Legebiltzarreko kontratazio-organoaren txostena beharko dira. Lizitazioaren iragarkia Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialean ere argitaratu baldin bada, hartutako erabaki hori Europako Batasunak kontratu publikoetarako duen aholku-lantaldearen aurrean ere justifikatu beharko da (Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu bategineko 83.4 art.). Gainera, bestelako gorabeherak direla-eta hala komeni bada, txostena egiteko eskatuko zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Kontratazioko Aholku Batzordeari.

Eskaintza jakin bat neurrigabea dela irizteko, enpresaren ahalmen ekonomikoaren eta aurkeztutako eskaintzaren arteko lotura har dezake kontuan kontratazio-organoak.

Eusko Legebiltzarreko Mahaiak, aipatutako txostenak aztertu ondoren, esleipena preziorik baxuenaz Eusko Legebiltzarren nahia bete dezakeen proposamenaren alde emango du, eta halakorik ez badago, ausarkerian erori ez den proposamen onenaren alde. Dena den, kasu batean zein bestean zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduak dituztela erakutsi beharko dute.

Hasiera batean proposamen tentugabea egin ez ote duen zalantzapean egon den enpresaburu batek lortzen badu, azkenean, esleipena, esleitutako kopuruaren edo lizitazioko oinarritzko aurrekontuaren %20ko bermea eskatuko zaio behin betiko. Berme horrek ordezkatu egingo du orri hauetako 10.A) klausulan aurreikusitako behin betiko bermea –kontratuko aurrekontuaren % 4koa–. Berme hori ezeztatzeke, Herri Administrazioen Kontratuen Legeko testu bategineko 47.4 artikuluan xedaturikoa bete beharko da.

9.2 KONTRATUA LEHIAKETA BIDEZ ESLEITZEA





- 9.2.1.** Eusko Legebiltzarreko Mahaiak gaitasuna izango du kontratua proposamen onuragarriari esleitzeko edo lehiaketa bete gabe uzteko. Lehenengo kasuan, ez da derrigorrez proposamenaren prezioa bakarrik hartu beharko kontuan, eta klausula-agiriaren azaleko 26,1 puntuan aipatzen diren irizpideak eta irizpide horiei emandako ponderazioa aplikatuko dira. Kasu bietan, erabakia zergatik hartu duen, esleipeneko irizpideak zeintzuk izan diren adierazi beharko du.
- 9.2.2.** Eusko Legebiltzarreko Mahaiak egingo duen esleipenaren bidez itxiko da kontratua. Dena den, kasu guztietan esleipena kontratista bati ematerakoan, kontratista horrek egiaztatuta eduki beharko du ordainduak dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.
- 9.2.3.** Dagozkion txosten teknikoen jaso ondoren, espedienteak izapide arrunta baldin bada, Eusko Legebiltzarreko Mahaiak gehienez ere hiru hilabete izango ditu kontratua esleitzeko, eta, berehala izapidetu beharrekoa deklaratu badute, hilabete eta erdi, non eta azaleko orrian beste eperik ez dagoen zehaztuta. Proposamenak zabaltzen direnetik aurrera hasiko da zenbatzen epea.
- 9.2.4.** Aipatutako epe horren barruan ez baldin bada esleipenari buruzko akordiorik hartzen, lehiaketan onartutako enpresaburuak beren proposamena erretiratu eta jarria luketen bermea itzul dakien edo bertan behera utz dadin eskatzeko eskubidea izango dute.
- 9.2.5.** Beheratze batzuk neurrigabeak edo tentugabeak direla erabakitzen baldin bada, behin betiko bermea izapidetu eta sortu beharko da, klausula-agiri honetako 9.1.3. klausulan esandako moduan. Beherapen neurrigabeak edo tentugabeak direla esan ahal izateko, klausula-agiri honen azaleko 26.3 eta 26.4 puntuetan aipatzen diren mugak izango dira kontuan. Hasiera batean behintzat ustez proposamen tentugabea egin duen enpresaburu bati esleitzen bazaio prestazioa, pertsona horrek behin betiko bermea jarri beharko du, agiri honetako 9.1.3. klausulan esaten den moduan.
- 9.2.6.** Azaleko 19. puntuan horrela jasota baldin badago, esleipendunari berme osagarri bat ere eskatu ahal izango zaio, kontratuaren prezioaren %16ra artekoa izan ahal izango dena, ondorengo bi egoerok kontuan hartuta: egindako eskaintzen batez bestekotik zenbateko desbiazioa izan duen beherantz, eta normala litzatekeena baino baxuagokotzat jotako eskaintzen mugara zenbateraino hurbiltzen den.

IV. KONTRATUA FORMALIZATZEA

10. KONTRATUA FORMALIZATU AURREKO BETEBEHARRAK

Kontratistak ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko ditu, esleipenaren jakinarazpena jasotzen duenetik 15 egun baliodun igaro baino lehen:

- A)** Eusko Legebiltzarren diruzaintza orokorrean behin betiko bermea jarri duela erakusten duen dokumentua. Berme hori esleipenaren aurrekontuaren edo lizitazioaren oinarriko aurrekontuaren % 4koa izango da, kontratuaren prezioa prezio unitarioen arabera zehazten den kasuetan. Klausula-agiri honen azaleko 19. puntuan berme osagarriren bat ere jarri behar dela esaten bada, horretarako aipatzen den kopurua ere jarri beharko da.

Bermea eskudirutan, balore publikotan edo balore pribatutan jarri ahal izango da. Balore pribatutan jartzen bada, Estatuak, autonomia-erkidego batek edo Espainian jarduteko behar



bezalako baimena duen banku, aurrezki kutxa, kreditu-kooperatiba edo elkarrekiko bermeko sozietateren batek bermatutakoak izan beharko dute baloreok.

Bermea osatzeko, aurrezki kutxa, kreditu-kooperatiba edo elkarrekiko bermeko sozietate batek emandako abala aurkeztea ere izango da, behar bezala baimendutako erakundeak baldin bada; baita kauzio-aseguru baten kontratua ere, baldin eta aseguru hori Espainian kauzioaren arloan jarduteko baimena duen aseguru-etxe batek emandakoa baldin bada.

Kontratatik aurretiaz hala eskatzen badu, eta Eusko Legebiltzarreko Mahaiak hala erabakitzen badu, prezioetik osa daiteke behin betiko bermea.

Dirua, tituluak, egiaztagiria, bermea edo kauzioko aseguruaren kontratuaren poliza Eusko Legebiltzarren diruzaintza orokorrean jarriko dira.

Behin-behineko bermearen orde, Eusko Legebiltzarreko diruzaintza orokorrak emandako egiaztagiria aurkeztu ahal izango da, eta egiaztagiri horretan hau adierazi beharko da: berme orokorra bada goela, berme hori nahikoa dela eta osatu beharreko bermeari dagokion kopurua ibilgeturik dagoela.

- B) Aldizkari ofizialetako iragarkien gastuak ordaindu direla egiaztatzea, kontuan hartuta esleipendunak ordaindu beharko duela, behin, kontratuen iragarpena Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregulamendu Orokorreko 75. artikulua).

11. KONTRATUA FORMALIZATZEA

- 11.1. Kontratua gauzatzeko dokumentua esleipenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita hogeita hamar natural igaro baino lehen egingo da, eta dokumentu hori administrazio-agiria izango da. Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregulamendu Orokorreko 71 artikuluan aipatutakoarekin bat etorriko beharko da.
- 11.2. Kontratatari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik ezin bada kontratua formalizatu goian aipatutako epe horretan, Eusko Legebiltzarreko Mahaiak kontratua bertan behera utzea erabaki ahal izango du. Erabaki hori hartu baino lehen, nahitaez entzun beharko dio interesatuari esateko duena, eta erabakia hartzerakoan, legeak ezarritako baldintzak bete beharko ditu. Horrelakoetan, kendu egingo zaio behin-behineko bermea, eta eragindako kalte eta galerak ordaintzeko eskatuko.
- 11.3. Kontratua bertan behera utziz gero, hurrengo lizitatuzailearen edo lizitatuzaileen alde esleitu daiteke, eskaintzen hurrenkerari jarraiturik. Esleipendun berriak ados egon beharko du.

V. KONTRATUA EXEKUTATZEA

12. EXEKUZIO HORI ZUZENTZEA ETA IKUSKATZEA

- 12.1. Kontratua Eusko Legebiltzarreko Mahaiaren zuzendaritza, ikuskaritza eta kontrolaren menpean exekutatu da. Eusko Legebiltzarreko Mahaiak beharrezko jarraibideak eman ahal izango ditu hitzartutakoak behar bezala betetzen den begiratzeko. (Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregulamendu Orokorreko 94.1 artikulua).





12.2. Hala ere, esaniko lana kontratuaren zuzendariak eraman ahal izango du aurrera. Zuzendariak titulazio egokia eta nahikoa izan beharko du eta bera izango da, halaber, hitzartutako prestazioa behar bezala egiten ote den egiaztatu, koordinatu eta zaintzearen ardura izango duena.

Bere lana egiteko, hainbat laguntzaile eduki ahal izango ditu agindupean. Pertsona horiek beren titulu profesionalen arabera edo ezagupen berezien arabera egingo dute lana, eta azterlaneko zuzendaritza osatuko dute.

12.3. Kontratua egiten denetik aurrera, Eusko Legebiltzarrak 15 egun natural izango ditu zein zuzendari izendatu duten jakinarazteko kontratistari. Era berean, zuzendari horrek epe hori bera izango du bere lankideen berri emateko. Zuzendaria edo laguntzaile-taldea aldatu behar izanez gero, hori ere kontratistari jakinarazi beharko zaio idatziz. (Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko 63.3 h) artikulua.

13. LANAK HASTEA

Lanak hasteko egun ofiziala kontratua formalizatu ondokoa izango da. Espedientea presakoa deklaritzen bada, Eusko Legebiltzarrak lanen hasiera agintzen duenetik aurrera –idatziz agindu beharko du– hasiko da kontaktzen exekutatzeko epea, eta Eusko Legebiltzarrak ez badu halako agindurik ematen, kontratistak esleipenaren jakinarazpena jasota agiri honetako 10 A) klausulan zehaztuta dagoen bermea jartzen duen egunaren biharamunetik aurrera.

14.- ARAU OROKORRAK

14.1. Kontratua gauzatzeko orduan, zehatz-mehatz bete beharko dira betebeharrak teknikoaren agiria, lanen programa, klausula-agiri honetan zehaztutakoa eta baita, betebeharrak denak ondo bete edo uler daitezzen, Eusko Legebiltzarraren ordezkariak kontratistari idatziz ematen dizkieten jarraibideak ere.

14.2.1. Kontratistak beharrezkoak diren ekipo eta bitarteko guztiak jarri beharko ditu, zerbitzua edo prestazioa behar bezala eta kontratuan ezarritako epeen barruan emateko.

Eusko Legebiltzarrak baztertu ahal izango du bitarteko bat, desegokia dela uste badu. Hala ere, ebazpen horren aurka erreklamazioa aurkeztu ahal izango du kontratistak; hamar egun natural izango ditu horretarako, zuzendariak erabaki hura jakinarazteko idatzia igortzen dionetik kontaktzen hasita.

14.2.2. Enpresa esleipendunak bere betebeharrak betetzeko behar dituen langileak kontratatu beharko ditu. Langile horiek esleipendunaren eta ez besteren menpekoak izango dira, eta esleipendunak nagusiari dagozkion eskubide eta betebeharrak izango ditu haiekiko, eta lan arloan eta laneko eta higieneko segurtasunaren arloan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu bere ardurapean dituen langileei dagokienez.

14.2.3. Esleipendunak jakitera emango ditu enpresari atxikita daudenen artean izendatu asmo dituen pertsonen izenak, eta pertsona horiek bete egin beharko dituzte Eusko Legebiltzarrak haiek onesterakoan jartzen dituen baldintzak. Esleipendunak eskaintzan izen eta abizenez zehaztutako fakultatiboak izendatu beharko ditu klausula-agiri honetan adierazitako lanak egiteko, eta haien dedikazioa ere eskaintzan zehaztutakoa izango da. Hortaz, kontratua indarrean dagoen bitartean, dedikazio osoa dutenek ezingo dute beste inon lanik egin. Era berean, kontratuko zuzendariak berariaz baimena eman ezean, eskaintzan zehaztutako fakultatiboak ezingo ditu ordezkatu esleipendunak.



14.3. Egindako lanak, edozein fasetan egiten direla ere, Eusko Legebiltzarraren jabetzapekoak izango dira. Beraz, hark edozein unetan eskatu ahal izango du prestazioen zati bat eskura dakion, baldin eta hori behin betiko lan-programarekin bat badator eta lanak behar bezala egitea eragozten ez badu.

Era berean, prestazioa ezarritako epea baino lehenago jasotzeko eskatu ahal izango dio aholkulariak Eusko Legebiltzarrari. Eusko Legebiltzarreko Mahaiak eskaera hori onartu edo ez erabakiko du.

14.4. Kontratu hau ondo betetzeko egiten diren lan guztiak isilpean gorde beharko dira, eta aholkulariak ezingo du beretzat erabili kontratatutako lanen daturik edo informaziorik, ez eta beste batzuei eman ere, non eta horretarako Eusko Legebiltzarrak idatziz emandako baimena ez duen. Hortaz, bere esku dagoen guztia egin beharko du egindako lanetik ateratako informazio eta emaitzak isilpean gordetzeko.

Lan horien ondorioz sor daitezkeen jabetza intelektualeko eskubide nahiz *copyright* direlakoak Eusko Legebiltzarraren jabetzakoak izango dira, ez beste inorenak, eta, edozein erakunde edo erregistroren aurrean –dela autonomia-erkidegokoa dela Espainiako Estatuaren administrazio zentralekoak–, hori egiaztatzeko agiriren bat aurkeztea beharrezkoa denean, agiri hori aurkezteko betebeharra izango dute alde biek.

Dena dela, aholkularia izango da betebehar hori ez betetzeagatik sor daitezkeen kalte eta galeren erantzulea.

14.5. Kontratuaren zehaztasunak, kontratuari erantsitako agiriak –kontratuaren zati dira–, edo Eusko Legebiltzarrak onartutako jarraibide, klausula-agiri edo era guztietako arauak ezagutu gabe ere, kontratistak horiek guztiak betetzeko obligazioa izaten jarraituko du, ez da horregatik obligazio horretatik aske geldituko.

14.6. Kontratuko lanak burutzeko epeei dagokiena Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu bateginaren 95. artikuluan arautzen da.

15. KONTRATISTARI ORDAINTZEA

15.1. Kontratistak eskubidea du benetan burutu dituen lanak ordain dakizkion, eta ordaindu ere, hitzartutako prezioetan ordain dakizkion, eta kontratuari, onartutako aldaketei eta Eusko Legebiltzarrak idatziz emandako aginduei jarraituz.

15.2. Lanak balioesteko, berriz, Herri Administrazioen Kontratuen Legeko Erregelamendu Orokorreko 199. eta 200. artikuluetan xedaturikoa eta administrazio-klausula berezi hauetako azaleko orriko 13. puntuan prezioa zehazteko sistemari buruz dioena bete beharko da.

15.3. Azaleko orriko 15. puntuan hala jartzen badu, esleipendunak kontratuaren zenbatekoaren 100eko 20ra arte aurretiaz jasotzeko eskubidea izango du, prestaketa-lanak ordaintzeko, puntu horretan bertan jasota dauden irizpide eta balorazio-moduen arabera. Dena dela, berme bat jarri beharko da, ordainketa horren aseguru gisa.

16. KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK

16.1. Kontratistak lan-arloan indarrean diren xedapenak bete beharko ditu, bai eta gizarte-segurantzakoak eta laneko segurtasun eta osasunekoak ere.





Eman beharreko prestazioa garbiketa-zerbitzua denean, orduan bereziki, hau hartu beharko da kontuan:

- Eraikuntzen eta lokalen garbiketako enpresen lan-ordenantzak eta hitzarmen kolektiboak ezarritako xedapenak bete beharko ditu kontratistak, bai eta nahitaez betetzekoa datekeen lan-segurtasun eta higieneko neurri oro ere.
- Orobat, behar adina neurri hartu beharko du, langileen biziari, gorputz-osotasunari eta osasunari kalte eragin diezaieketen arriskuak eragozteko.
- Era berean, langileei lanean dabiltzala edozein eratako istripu edo kaltea gertatuz gero, esleipendunak indarrean dauden arauak xedatutakoa betetzeko erantzukizuna edukiko du. Eusko Legebiltzarrak, aldiz, ez du horretaz erantzun beharrik edukiko.

16.2. Halaber, kontratistak obligazioa du Aginduen Liburua zaindu eta zuzendaritzaren eskura edukitzeko, Eusko Legebiltzarrak egoki irizten dionerako. Liburu hori Eusko Legebiltzarrak berak eginbidetuta egongo da, eta, hala behar denean, egokiak iruditzen zaizkion agindu, jarraibide eta komunikazioak idatziko ditu bertan, eta bere sinadura ipiniko haien ondoan. Kontratistak jarraibide horiek jaso izanaren agiria sinatuko du, bere kabuz edo bere ordezkorearen bitartez.

Aginduen liburua lana hasteko egunean irekiko da, eta klausula-agirii honen azaleko 21. puntuan ezarritako berme-aldia amaitutakoan itxiko.

16.3. Egindako lanen eta emandako prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzukizuna izango du kontratistak; baita ere, kontratua betetzerakoan egiten dituen hutsegite eta akatsek, erabiltzen dituen metodo ezegokiek eta ateratzen dituen ondorio okerrekin Eusko Legebiltzarrarentzat edo beste norbaitentzat izan ditzaketen ondorioena, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu bategineko 97. artikuluan jartzen duen moduan.

16.4. Esleipendunak ordaindu beharko ditu beste batzuei eragindako kalteak, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu bategineko 97. artikulua xedatzen duenaren arabera.

16.5. Kontratistak ordainduko ditu baimen, agiri edo erakunde ofizial edo banakoen edozein informazio eskuratzeko behar diren gastuak. Eta orobat indarrean diren xedapenen aplikazioak dakartzan zerga, eskubidea, tasa, konpentsazio edo gastu eta kargak ere, xedapen horiek eurek zehaztutako moduan eta zenbatekoan.

16.6. Kontratistari dagokio hitzartutakoa betetzeko behar diren baimen eta lizentzia guztiak eskuratzeko, hala ofizialak nola banakoenak.

16.7. Kontratua behar bezala betetzeko beharrezkoak diren zerbitzu profesionalak eskuratu beharko dizkio kontratistak Eusko Legebiltzarrari, honek beharrezko irizten dizkienak eta batere kosturik gehitu gabe, hala nola argibideak emateko bileretara joatea, jendaurreko informazioa ematea eta abar.

16.8. Kontratua exekutatzeko epea eta kontratu honetan zehazturiko zatikako epeak bete egin beharko ditu esleipendunak. Epe osoa edo zatikako epeak amaitu eta kontratista, bere erruz, berandu iritsi bada, Eusko Legebiltzarrak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea, edo zigor ekonomikoak jartzea. Zigor horien zenbatekoa, berriz, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu bategineko 95.3 artikuluko lehenengo paragrafoan dago zehaztuta.

17. LAN AKASTUNAK EDO GAIZKI EGINDAKOAK





- 17.1. Klausula-agiriaren azaleko 22. puntuan ezarritako berme-aldia igaro arte, kontratistak kontratatutako lanak ondo eginda egoteaz erantzungo du, bai eta lan horiek izan dezaketen akatsez ere, nahiz eta Eusko Legebiltzarraren ordezkariak lan horiek ikuskatuak edo egiaztatuak izan, egiten ari ziren bitartean, edo onartuak, egiaztapen, balioztapen edo zati baten ziurtapenetan, horrek ez baitu aske utziko erantzukizun horretatik, ez eta eskubiderik emango.
- 17.2. Lan akastun edo gaizki egindakoa Eusko Legebiltzarrak berak emandako agindu baten ondorio zuzena bada, kontratistak ez du erantzukizunik izango.
- 17.3. Eusko Legebiltzarreko Mahaiak uste badu ez direla kontratuko baldintza teknikoak bete, Herri Administrazioen Kontratuen Legeko Erregelamendu Orokorreko 203. artikuluan xedaturikoa bete beharko da, eta hitzartutako lan hori ez baldin badago onartzeko moduan, erregelamendu horretako 204. artikuluan eta agiri honetako 20. klausulan xedaturikoa bete beharko da.
- 17.4. Aholkularitza- eta laguntza-kontratua obra-proiektu bat oso-osorik lantzea baldin bada, orduan bereziki, honako hauek hartu beharko dira kontuan.
- 17.4.1. Orokorrean, kontratistak honako honetaz erantzungo du: obrak egiterakoan edo ustiatzerakoan Eusko Legebiltzarrari edo beste norbaiti eragiten dizkion kalte eta galerez, baldin eta proiektuaren akats edo hutsegite teknikoengatik edo kontratistari berari egotz dakizkiokeen errakuntza materialengatik, ez-egiteengatik edo lege- edo erregelamendu-xedapenak hausteengatik badira. Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu bategineko 219. artikulua 2. puntuan zehazten da horregatik ordaindu beharko duen kalte-ordaina.
- 17.4.2. Kontratistari egotz dakizkiokeen akats, gabezia tekniko, errakuntza material, ez-egite edo lege- edo erregelamendu-xedapenen hausketak zuzendu edo konpontzeari dagokionez, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu bategineko 217. artikulua ezarritakoa aplikatuko da.
- 17.4.3. Baldin eta, aholkulari-kontratistari egotz dakizkiokeen errakuntza edo ez-egiteengatik, obraren benetako kostuak proiektuan aurreikusitako obra-aurrekontuarekin % 20 baino alde handiagoa ematen badu –dela goitik edo behetik–, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu bategineko 218. artikulua 2. paragrafoan zehazten diren kalte-ordainak ordaindu beharko ditu kontratistak. Aldez aurretik, dagokion dosierra egingo du Eusko Legebiltzarrak, interesatuari esateko duena entzuteko aukera duena.

18. KONTRATUA LAGATZEA ETA BIRKONTRATATZEA

- 18.1. Aholkularitza eta laguntzako eta zerbitzuetako kontratuak laga egin ahal izango dira, Herri Administrazioen Kontratuen Legeko testu bategineko 114. artikuluan zehazturiko baldintzen pean.
- 18.2. Klausula-agiriaren azalean birkontratazioa galarazten ez bada, eta zenbait kontraturen berriazko eskakizunak ere bete beharra kendu gabe, kontratistak egiaztatu egin beharko ditu zehaztasun hauek:
- Kontratuaren zati bat edo batzuk gauzatzeko zein birkontratazioarekin egingo duen hitzarmena eta kontratuaren zein zati birkontratatu duen; Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu bategineko 115. artikulua 2.b) paragrafoan eta klausula-agiriaren azalean xedatutakoa bete beharko da birkontratatzerakoan.





- Prezioari dagokionez, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu bategineko 116. artikuluan zehazten diren epe eta baldintzekin hitzartu beharra betetzea birkontratastarekin edo hornitzaileekin.
- Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu bategineko 115. artikuluko 4. paragrafoan ezarritako baldintza betetzea. Baldintza horren arabera, ezin da birkontrataziorik egin gaitasunik gabe utzitako pertsonekin edo 20. artikuluko kasuetan daudenekin –artikulu horretako K letrakoeekin izan ezik– edo sailkapenaren etendurako kasuan daudenekin.

18.3. Kasu horiek egiaztatzeko, esleipendunak honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

- a)** Birkontratazioa formalizatu aurreko komunikazio idatzia. Agiri horretan hauek adierazi beharko da zein birkontratastarekin hitzartuko duen kontratuaren zati baten edo batzuen exekuzioa, eta kontratuaren zein zati birkontratatuko den.
- b)** Komunikazio horri alde biek sinatutako agiri baten zirriborroa erantsiko zaio, agiri hori birkontratazista eta hornitzaile bakoitzak sinatzeko. Agirian, Herri Administrazioen Kontratuen Legeko 115. artikulua xedatzen duenari jarraituz hitzartu beharko dituzte alde biek ordainketa-epe eta baldintzak.
- c)** Puntu honetako a) hizkian aipatutako komunikazioari honako egiaztagiria hauek ere gehituko zaizkio:

1) Agiri bat, Herri Administrazioen Kontratuen Legeko 20. artikuluko a, b, c, d, e, f, g, h, i eta j hizkietan kontratuak egiteko ezarritako debekuetako batek ere ez diela eragiten egiaztatzeko. Egiaztapen hori epailearen lekukotasunaren bidez edo administrazio-ziurtagiriaren bidez egin ahal izango da, kasuak kasu. Eta agintaritzaren eskudunak ezin badu agiri eman, horren ordez erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahal izango da, administrazio-agintaritzaren, notario publiko edo lanbide-erakunde kualifikatu baten aurrean emandakoa. Horrelakoetan, birkontratazista pertsona juridikoa bada, adierazpena sinatzen duenak ahalmen-agiri aurkeztu beharko du, enpresa Eusko Legebiltzarraren aurrean ordezkatzeko gaitasuna baduela egiaztatzen duena, eta pertsona fisikoa bada, nortasun-agiri nazionala.

Indarrean dagoen legeriak ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagokionez, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko 15. artikuluan ezartzen den moduan egiaztatu ahal izango da betebeharrak bete izana. Betebeharrak bete izana egiaztatzeko, egiaztagiria administratiboak aurkeztu beharko dira. Egiaztagirioak, kasuan kasuko ogasunek (Estatuko Ogasunak edo foru-ogasunak, sozietateen gaineko zergan ageri den eragiketa-kopuruen arabera) eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra eman beharko dituzte. Aldiz, jardura ekonomikoaren gaineko zergari dagokionez, alta-agiriaren –aldian aldiko ekitaldikoa–, kontratuaren helburuari dagokion epigrafean, edo azkenengo ordainagiri aurkeztu beharko dira. Azkenengo ordainagiri aurkeztuz gero, zerga horren matrikulan baja eman ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu beharko da osagarri gisa.

3) Kontratatzeko ahalmena egiaztatzeko prozeduraren bidez Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emanda dauden birkontratastak erregistroko legelari-arduradunak emandako egiaztagiria baliodunaren kopia baino ez dute aurkeztu beharko (Kontratisten Erregistro Ofizialari eta sailkapenak ezartzeari buruzko otsailaren 3ko 12/1998 Dekretuak arautzen du delako erregistroa). Egiaztagiria hori, erregistroko legelari arduradunak eman



beharko du. Horrela, ez dituzte aurkeztu eta egiaztatu beharko aurreko 1) eta 2) puntuetan adierazitako dokumentu eta inguruabarrak.

18.4. Birkontratazioa formalizatu baino gutxienez hamabost egun natural lehenago, esleipendunak 18.3 klausulan aipatzen diren dokumentuak aurkeztu beharko ditu Eusko Legebiltzarreko Mahaian. Birkontratazioa formalizatu ondoren, 18.3.b) klausulan aipatutako dokumentu alde bietakoaren jatorrizko bat aurkeztu beharko du esleipendunak Eusko Legebiltzarreko Mahaian, behar bezala izenpetuta. Esleipendunak betebehar hori betetzen ez badu, edo ezarritako gainerako baldintzak betetzen ez baditu, ez du birkontratazio hori egiterik izango.

19. KONTRATUA ALDATZEA ETA ETETEA

19.1- Gai honi dagokionez, bete egin beharko da Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu bategineko 101, 102 eta 212. artikuluetan xedaturikoa.

19.2. Kontratuaren xedea ezertan aldatu behar bada, kontratuko zuzendariak proposamena idatzi beharko du, eta, proposamen horretan, aldaketa hori arrazoitzeko, azaltzeko eta baloratzeko dokumentuak jaso beharko dira. **Eusko Legebiltzarreko Mahaian aldaketa horiek onartzeko, lehenago, kontratistari entzun eta dena delako gastua fiskalizatu egin beharko du.**

19.3. Aldaketak beste lan batzuk badakartza eta lan horiek ez badira kontratuan jasotako sistemaren bidez, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu bategineko 146.2 artikuluan xedaturikoa bete beharko da.

19.4. Eusko Legebiltzarreko Mahaian aldaketa hori idatziz jasotzea erabakitzen badu, eta horrek baldin badakar ezin dela lanen zati batzuk egiten jarraitu, kontratu hori aldi baterako, zatiren batean edo osorik etetea erabaki beharko da, beharren arabera.

Kontratuaren exekuzio-aldia edo iraupena, berriz, kasu berezietan izan ezik, ezingo da, proportzioan, kontratu horretako aurrekontua egiten dena baino gehiago luzatu edo laburtu. Kasu berezi horiek behar bezala arrazoitu beharko dira, eta halakoetan bai, kontratistak eskaturik eta zuzendariak aurretiaz txostena eginik, epea gehiago aldatu ahal izango da.

19.5. Ez kontratistak ez zuzendariak ezingo dute behar bezala onarturik ez dagoen inolako aldaketarik sartu edo exekutatu. Lanak zuzendu, ikuskatu eta zaintzeko ardura duten funtzionarioek dagokien erantzukizuna eduki badezakete ere, kontratuaren xedea Eusko Legebiltzarreko Mahaian behar bezalako baimenik gabe ezertan aldatuz gero, aholkulariak erantzun beharko du, eta aldaketa horien eraginpean dauden lanak berrituz egin beharko ditu nahitaez.

19.6.- Kontratuko aldaketa horiek Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu bategineko 54. artikuluan xedaturikoaren arabera formalizatu behar dira.

19.7.- Kontratuan aldaketak egitea, eta horiek, elkarren segidakoak izan arren, bakarka edo multzoka hartuta, kontratuaren prezio zaharrean –balio erantsiaren gaineko zerga kontuan hartu gabe– % 20ko gorabeherak eragitea bai gorantz bai beherantz, edo kontratuaren beraren funtsa aldaraztea, kontratua suntsitzeko arrazoia izango da.

19.8. Kontratuaren etetea dela-eta, berriz, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko 103.1 artikuluko etete-aktan honako gauza hauek ere zehaztu beharko dira: etetea aldi baterakoa, zati baterakoa edo osoa ote den edo behin betikoa ote den, hitzartutako lanaren justu zein zati eten den, eta etetea gertatzen den momentuan hitzartutako lana zertan den hobeto



ulertzeko bidea emango duen gorabehera oro. Etendako zatia edo zatiak zerrenda batean jaso eta aktari gehitu beharko zaio.

VI. KONTRATUA AMAITZEA

20. LANAK AMAITZEA ETA LAN HORIEK JASOTZEA

20.1. Behin lanak amaiturik eta kontratistaren gainerako zeregin osagarriak –halakorik baldin badago- beterik, kontratista horrek Eusko Legebiltzarraren onarpena eskatuko du, eta, horretarako, egokiak iruditzen zaizkion agiriak eta ziurtagiriak aurkeztuko ditu. Agiri-ziurtagiri horiek zuzendaritzaren bulegoetan aurkeztu beharko ditu, kontratuko epea amaitu eta hurrengo hamar egun naturaletan. Funtzionario arduradunak agiri bat emango dio, dokumentu eta ziurtagiri horiek jaso izana ziurtatzeko.

20.2. Lanak edo prestazioak aztertu eta egiaztatu ondoren, kontratuko zuzendariak uste badu kontratuko baldintza teknikoak ondo beteta daudela, lan edo prestazio horiek jasotzeko proposatuko du.

Kontratua betetzat joko da kontratistak kontratuaren xedea kontratuko baldintzen arabera eta Eusko Legebiltzarrak nahi duen erara burutzen duenean.

20.3. Irizten baldin bazaio ez direla kontratuko baldintza teknikoak bete, zuzendariak idatziz azaldu beharko ditu hutsuneak edo akatsak konpontzeko beharrezko jarraibide zehatzak. Era berean azalduko du noizko behar duen lan horrek eginda egon eta beste oharrik baldin badu, idazki horretan bertan egingo du.

20.4. Kontratistak, Eusko Legebiltzarraren ordezkariaren oharrak irakurrita, erreklamaziorik egiten baldin badu, ordezkari horrek txostenari erantsi eta Eusko Legebiltzarreko Mahaira bidali beharko du, erreklamazioaz ebatzi dezan.

20.5. Kontratuko zuzendariaren oharrak direla-eta kontratistak ez baldin badu idatziz ezer erreklamaten, ados dagoela ulertuko dugu, eta ikusitako akats horiek zuzentzeko edo konpontzeko betebeharra daukala.

20.6.- Kontratistari akats horiek konpontzeko emandako epea amaitu eta oraindik ez baldin baditu konpondu, suntsitu egin ahal izango da kontratua. Halakoetan, behin betiko bermea galdu egingo du, eta berme hori ez bada kalteak ordaintzeko nahikoa, kontratistak bermeaz gorako aldearen kalteordaina eman beharko dio Eusko Legebiltzarrari.

Nolanahi ere, egindako lanak, kontratistari egotzi dakizkiokeen akats edo okerrenetatik, ez baldin bazaizkio egokitzen kontratuko prestazioari, lanak gaitzestea eta ez jasotzea erabaki ahal izango du Eusko Legebiltzarreko Mahaiak. Honenbestez, ez du izango ordaintzeko betebeharririk, eta, ezer ordaindurik badu, atzera berreskuratzeke eskubidea edukiko du. Honenbestez, ez du izango ordaintzeko betebeharririk, eta, ezer ordaindua badu, atzera berreskuratzeke eskubidea izango du.

20.7 Gorago aipatutako izapideak burututa, uste bada prestazioak betetzen dituela beharrezko baldintzak, jaso egingo da. Hitzartutakoa jasotzeko gehieneko epea klausula-agiri honetako azaleko 22. puntuan dago zehazturik, kontratuaren xedea entregatzen edo burutzen den egunetik kontatzen hasita.





Prestazioak jasotzea akta batean zehaztu beharko da. Gauza jakinekora izan dadin, prestazioa jasotzeko edo haren adostasuna erakusteko egintza formala eta positiboa egin beharko du Eusko Legebiltzarrak.

20.8.- Jasotze-aktaren egunetik kontatzen hasita hilabeteko epearen barruan, hala badagokio kontratuaren likidazioa erabaki beharko da eta kontratistari jakinarazi, eta likidazio horren emaitza ordaindu beharko zaio. Likidazioaren emaitza ordaintzen atzeratuz gero, diruaren legezko interesa 1,5 puntu gehituta jasotzeko eskubidea izango du kontratistak, likidazioa egin ondoren bi hilabete igarotzen diren egunetik hasita.

20.9.- Berme-aldia amaitu eta Eusko Legebiltzarrak ez badu eragozpenik adierazi edo salaketarik egin, emandako prestazioaren erantzukizunik ez du izango jada kontratistak. Nolanahi ere, bete beharrekoa izango da Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu bateginekoko 217, 218 eta 219. artikuluetan xedatutakoa.

20.10.- Kontratistak eskubidea izango du berak emandako prestazioari buruz Eusko Legebiltzarrak egiten dituen oharrik ezagutzeko eta ohar horiei buruz bere iritzia jakinarazi ahal izateko.

21. KONTRATUA SUNTSITZEA

21.1. Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu bateginekoko 111. artikuluan aurreikusitako arazoiez gain, honako hauek ere kontratua suntsiarazteko arazoiak dira:

- a) Kontratuaren hasiera, hasteko ezarrita zeukan egunetik kontatzen hasita, sei hilabete baino gehiagoan etenda egotea, eta arazoia Eusko Legebiltzarrari egotzi ahal izatea.
- b) Kontratuan atzera egitea edo, Eusko Legebiltzarrak hala erabakita, kontratua urtebete baino gehiagoan etenda egotea.
- c) Kontratu nagusia suntsituz gero, kontratu osagarriak ere bai; Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu bateginekoko 198.2 artikuluan definitzen dira kontratu osagarriak.
- d) Kontratuan aldaketak egitea eta horiek, elkarren segidakoak izan arren, bakarka edo multzoka hartuta, kontratuaren prezio zaharrean gorantz edo beherantz % 20ko gorabeherak eragitea –balio erantsiaren gaineko zerga kontuan hartu gabe– edo kontratuaren beraren funtsa aldaraztea.

21.2. Kontratua suntsitzeko arazoiak izan daitezke honako hauek ere:

- Kontratistak ez betetzea klausula-agiri honetan edo kontratuko gainerako agirietan zehaztuta dauden nahitaezko betebeharrak.
- Kontratistak beste batzuei informazioa ematea kontratuaren xede diren gaiei buruz; hori behar bezala egiaztatzea beharko da. Kontratua suntsitzeko arazoia hau aholkulariaren erruz kontratua ez betetzat joko da ondorio guztietarako.

22. BERMEA ITZULTZEA

22.1.- Kontratuaren likidazioa onartu ondoren, baldin eta bermearen gainean ezarri beharreko erantzukizunik ez badago, bermea itzultzeko edo abala ezeztatzeko akordioa hartuko da, klausula-agiri honen azaleko 22. puntuan jasotako berme-aldia igarota. Bermea edo abala zein agintaritzaren alde eratu den, agintaritzak horrek Eusko Legebiltzarreko diruzaintza nagusiarri jakinarazi beharko dio erantzukizunik ote dagoen bermearen gainean kontratuaren ondoriozko betebeharrak direla-eta.





22.2.- Kontratua amaitzen denetik urtebete igaro eta oraindik ez bada formalki jaso ez eta likidaziorik ere egin, eta horren arrazoiak ezin bazaizkio kontratistari egotzi, orduan, gehiago luzatu gabe, bermea itzuli edo ezeztatu egingo da. Horretarako, ordea, beharrezkoa izango da Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu bategineko 43. artikulua aipatzen dituen erantzukizun-kasuak ez gertatzea.

22.3.- Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu bategineko 36.4 eta 83.5 artikuluei jarraituz eraturako bermeak direnean, kontratuko prestazioak jasotzeko egintza burututakoan, hasieran jarritako bermearen ordez beste bat jarriko da, esleipen-zenbatekoaren % 4koa, eta berme hori aurreko bi lerroaldeetan ezarritakoaren arabera ezeztatuko da.

VII. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

23.1. Eusko Legebiltzarreko Mahaiak eskubidea du administrazio-kontratua interpretatzeko, kontratua betetzeak sor ditzakeen zalantzak argitzeko, interes publikoko arrazoiak direla-eta kontratua aldatzeko, kontratua suntsiarazteko eta suntsiaraztearen ondorioak zehazteko. Hori guztia egiteko, kontuan hartu behar da zeintzuk diren Herri Administrazioen Kontratuen Legean ezarritako mugak, baldintzak eta ondorioak.

23.2. Horretarako erabakiak hartu baino lehen, entzun egin beharko zaio kontratistari, eta aplikatzekoa den legediak hala eskatzen badu, dagokion zerbitzu juridikoak txostena egin beharko du. Erabakiok nahitaez betetzekoak izango dira, besterik gabe, eta administrazio-bidea amaituko dute.

23.3. Administrazio-bidea amaitzen duten erabaki guztien aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, jurisdikzio hori arautzen duen legearen arabera. Eta aukeran, Administrazio Prozedura Erkidearen Legeari jarraituz, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da erabakia eman duen organo beraren aurrean.





I. ERANSKINA

PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

DATU PERTSONALAK

Izen-abizenak:

Helbidea:

Nortasun-agiri nazionala:

Ordezkatzen duen enpresa (bere kabuz ari ez bada):

Enpresaren izena:

Helbidea: Posta Kodea:

Telefonoa: Identifikazio fiskaleko kodea:

ADIERAZPENA

I. Izan dut, bai, dena delako kontratua esleitzeko lehiaketa-iragarkiaren berri. Hauxe da kontratuaren xedea:

.....
.....
.....

II. Halaber, ezagutzen ditudala Betebehar Teknikoen Orriak, Administrazio Klausula Berezien Orriak eta kontratu hau zuzenduko duten gainerako agiriak. Horiek guztiak nire gain hartzen ditut berariaz, eta men egiten diet.

III. Ordezkatzen dudan enpresak indarrean dauden legeek eskatutako baldintza guztiak betetzen ditu enpresa zabaldu, instalatu eta jardunean jartzeari dagokienez.

IV. Eskaintza honen prestazioari dagokionez, prestazioa emateko proposamen hau egiten dut:

a) Oinarrizko konponbide, bariante edo alternatibaren zenbakia (zehaztu beharrekoa zehaztu):

.....
.....

b) Diru-kopurua guztira (letraz idatzi):

.....
.....





Eskaintako prezioaren barruan kontzeptu guztiak izango dira, baita balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) eta esleipenean ordaindu beharreko beste edozein zerga edo gastu, eta orobat joan etorriak eta kontratistaren irabaziak ere.

c) Epea (esleipena nori eman erabakitzeko irizpideetako bat baldin bada besterik ez):.....
.....

..... (e)n,(e)koarenean.

Izpta.:

NAN:





II. ERANSKINA

ATZERRIKO ENPRESEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Europako Erkidegokoak bai baina espainiarrak ez diren enpresek ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko dute B gutun-azalean:

1. Enpresek jarduteko gaitasuna egiaztatu beharra daukate. Horretarako, kasuan kasuko estatuko legeek hala eskatzen badute, lanbideko edo merkataritzako erregistro batean izena eman beharko dute, edo, bestela, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko I. eranskinean zehazturik datozen egiaztatagiriak aurkeztu.
2. Lizitatuak bere izenean jarduten ez duenean edota pertsona juridikoa denean, ahalorde nahikoa aurkeztu beharko du. Ahalorde hori, gainera, ofizialki gaztelaniara edo euskarara itzulita aurkeztu beharko da.
3. Kontratutik zuzenean edo zeharka erator daitekeen gorabehera orotarako, Espainiako edozein mailatako epaitegi eta auzitegiren eskumenaren menpe jartzeko adierazpena. Adierazpen horren barruan sartuko da, hala badagokio, lizitatuak egokitu dakioken atzerriko eskumen- auzitegiari uko egitea ere.
4. Herri Administrazioen Kontratuen Legearen 20. artikuluko a), b), c), d), e), g), h), i), j) eta k) letretako egoeretako batean ere ez egotearen egiaztatpena.

Egiaztapen hori lekukotasun judizial edo administrazio-egiaztagiri bidez egin ahal izango da, kasuak kasu. Agintaritza eskudunak ezin badu agiria eman, horren ordez erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahal izango da, administrazio-agintaritza, notario publiko edo lanbide-erakunde kualifikatu baten aurrean emandakoa. Kasuan kasuko estatuaren legediak aukera ematen badu, agintari judizialaren aurrean emandako erantzukizunpeko adierazpenak ere balio izango du beste horien ordez.

5. Europako Erkidegoko kasuan kasuko estatuko agintaritza eskudunak egindako egiaztatgiri, dena delako enpresak, aginte esleituaren estatuko legezko xedapenen arabera, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak egunean dituela egiaztatzeko. Agiri hau ere ofizialki gaztelaniara edo euskarara itzulita aurkeztu beharko du.
6. Sailkapena eskatzen bada, Europako Erkidegokoak bai baina espainiarrak ez diren enpresaburuentzat nahikoa izango da Eusko Legebiltzarreko Mahaiaren aurrean gaitasun ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa egiaztatzea, Herri Administrazioen Kontratuen Legeko 16. eta 19. artikuluen arabera.

Europako Erkidegoko estatuak euren enpresaburuen alde egindako sailkapen-egiaztatgiriak edo antzeko dokumentuak enpresaburu horien ustezko ahalmena adieraziko dute kontratazio-organoen aurrean, 16.1 artikuluko b) eta c) letretan, 19. artikuluko b) eta d) letretan eta 20. artikuluko a), b), d) eta i) letretan ezarritakoari dagokionez.

7. Lizitatuak klausula-agiri honen azaleko 14. puntuan eskatzen den behin-behineko bermea eman beharko du. Berme hori 10.A) klausulan –klausula-agiri honetako 7.5.3 klausulari dagokionez– adierazten den moduan eratuko da.
8. Europako Erkidegokoak ez diren estatuak enpresa atzerritarrek, aurreko paragrafoetan azaldutako baldintzez gain, ondoko hauek ere egiaztatu beharko dituzte:





- a) Jarduteko ahalmena, enpresak egoitza duen lekuan Espainiak duen diplomaziako ordezkariak finkoak edo kontsul-etxeko bulegoak emandako txosten bidez. Txosten horrek hau adierazi beharko du, aurretiaz enpresak egiaztatuz: enpresa horrek izena emana duela hango lanbide edo merkataritzako erregistroan edo antzekoan, eta halakorik ezean, kontratuaren xedearen eremuko jardueretan aritzen dela. Alabaina, Europako Ekonomia Espazioari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako enpresak badira, jarduteko ahalmena eranskin honetako 1. puntuan aurreikusitakoari jarraituz egiaztatu beharko dute (Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko 10. artikulua).
- b) Enpresaren jatorrizko estatuak funtsean modu berdintsuan onartzen duela Espainiako enpresek hango administrazioarekiko kontratazioetan parte hartzea, edo estatu horrek sinatua duela Merkataritzako Mundu Erakundearen Kontratazio publikoari buruzko Akordioa. Azken hori egiaztatzeke, Espainiak kasuan kasuko estatuan han duen ordezkari diplomatikoaren txostena beharko da.
- c) Dokumentu bidez egiaztatzea baduela irekita sukurtsal bat Espainian helbidea duena, eta beharrezko eragiketarako ahalduak edo ordezkariak nominalki izendatu dituela.
- d) Merkataritza Erregistroan inskribatuta dagoela, bai eta aurreko paragrafoan aipatzen diren ahalduen ahalordetzeak ere inskribatuak dituela.
- e) Baldin eta kontratuaren zenbatekoa –balio erantsiaren gaineko zerga alde batera utzita–, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen 135.1 artikuluan ageri den zenbatekoaren berdina edo handiagoa bada, Merkataritzako Mundu Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako enpresei ez zaie eskatuko b) paragrafoak aipatzen duen elkarrekikotasun-txostena.

